



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
*Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
*Dirección de Salud Pública
y Adicciones*

EAE-KO IGERILEKUEN ETA UR-JOLASGUNEEN INSTALAZIOAK IREKI/BERRIRO IREKI ETA MANTENTZEKO OSASUN-IRIZPIDEAK

COVID-19AREN KONTINGENTZIA PLANA

Gasteizen, 2021eko irailaren 21ean

**OHARRA:**

Dokumentu honetan jasotako gomendioak berrikusi eta eguneratu egingo dira, egoera epidemiologikoan izandako aldaketengatik, ebidentzia zientifiko berriengatik eta/edo osasun-araudian izandako aldaketengatik hala behar izanez gero.

1. SARRERA

Maiatzaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez aitortutako alarma-egoera 2021eko maiatzaren 9an indargabetu ondoren, Lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua onartu zen, SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa (23/2021 Dekretua). Gerora, Lehendakariaren ekainaren 18ko 30/2021 Dekretuak aldatu zuen.

Hitzaurrean ezartzen den bezala, bertan COVID 19 eragiten duen birusaren hedapenari aurre egiteko hainbat motatako neurriak jasotzen dira, aurreikus daitekeen erabilgarritasunarekin, gure inguruko herrialdeek modu sistematikoan horietara jo dutela egiaztatuta, eta OMEk eta nazioarteko beste erakunde batzuek adierazitakoarekin bat etorritz.

2. SARS-COV-2AREN TRANSMISIOA IGERILEKUETAN

Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenaren (CSIC, 2020) *SARS-CoV-2aren hondartzetako eta igerilekuetako transmisioari buruzko txostenak* eta ondorioek honako hau adierazten dute, igerilekuei dagokienez:

- Hondartzetan, ibaietan, lakuetan eta igerilekuetan, ezturekin zein doministikekin sortzen diren arnas jariakinen eta pertsonen arteko kontaktuaren bidez transmititzen da batez ere SARS-CoV-2a. Beraz, beste edozein lekuri buruzko gomendio orokorrei eutsi behar zaie.
- Jolas-jardueretan, ez da oso gertagarria SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioa bainurako baldintza estandarrak dituen urarekin kontaktua izateagatik edukitzea. Hala ere, jarduera horiek urrutze sozialerako gomendatutako neurrien galera dakarte, oro har.
- Igerilekuetan, erabiltzaileen joan-etorriek ura mikrobioen bidez kutsa ez dezaten desinfektatzaileen erabilera oso ezarrita dagoenez, uretan dagoen desinfekzio-agentearen kontzentrazioak nahikoa izan beharko luke birusa inaktibatzeke.
- Instalazioetako giroa tenperatura altuetan mantentzen den kasuetan, saunen kasuan bezala, tenperatura altuaren ondorioz (> 60 °C) birusaren biziraupena txikia izatea espero da.

Gaur egun, ebidentzia zientifiko sendoek erakusten dute SARS-CoV-2 birusa zabaltzeko beste bide bat ere badagoela, aerosolen bidezko transmisioa, aurretik aitortutakoez gain (arnas jariakinekin edo fomiteekin kontaktua izatea) (Eusko Jaurlaritza, 2020). Aerosolek, batetik konjuntibetan eta goiko arnasbideko mukosan eragin eta bertan gera daitezke, bestetik inhalatu daitezke arnasbidearen edozein tartetara iritsiz.

Transmisio horren arriskua areagotu egiten da distantzia laburrean, ingurune itxietan eta jendetsuetan, bereziki gaizki aireztatutakoetan, eta aerosolen sorrera areagotzen duten jarduerak egiten badira, hala nola ariketa fisikoa egitea, ozen hitz egitea, oihukatzea edo abestea. Barnealdeetan kutsatzeko arriskua kanpoaldekoen aldean nabarmen handiagoa da.

Beraz, kontuan hartuta SARS-CoV-2aren transmisio-bide nagusia aerosolen bidez, arnas-jariakinen bidez eta pertsonen arteko hurbileko kontaktuaren bidez dela, igerilekuetan, gomendatutako pertsonen arteko urruntze-neurrien galerarekin eta transferentzia-mekanismo gisa balio dezaketen erabilera komuneko objektuekiko kontaktuarekin lotuta daude, funtsean, COVID-19ari lotutako arriskuak. Hauek dira birusaren transmisioa saihesteko hartu beharreko neurriak: uraren tratamendu eta kontrol egokiaz gain, pertsonen arteko distantzia, maskararen erabilera egokia, eskuen higiena indartzea eta instalazioa garbitu eta desinfektatzea. Herriar guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Zuhurtasun- eta babes-betebehar hori edozein jardueraren titularrei ere eskatu ahal izango zaie. Kontzientziazio kolektiboa eta norbanakoaren erantzukizuna garrantzitsuak dira.

3. XEDEA

- Igerilekuak eta ur-jolasguneak irekitzeko/berririo irekitzeko prozedura ezartzea. Azken horiek honela definitzen dira: ontzirik gabeko eraikuntza-elementuak, birzirkulazioa dutenak eta ura tratatzeko sistema dutenak, eta helburua ura erabiltzailearekin kontaktuan jartzen den erabilera ludikoa izatea dutenak. Erabilera publikokoak edo pribatukoak izan daitezke, eta ur-jolasen multzo (ur-zirkuitu bakarrari dagokion kuboak, perretxikoak, loreak, arkuak...dituen jolas-taldea, beste zirkuituetatik bereizita dagoena) bat edo gehiago izan ditzakete.
- COVID-19 kontingentzia-planak egiteko eta eguneratzeko jarraibideak ezartzea, igerilekuetan eta ur-jolasguneetan SARS-CoV-2 sistema transmititzeko arriskua minimizatzeko.

4. OSASUN AGINTARITZARI IREKITZEA JAKINARAZTEA

- 1, 2 eta 3A motako instalazio guztiek (20 etxebizitzatik gorako jabekide-komunitateek) **Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu beharko diote dagokion Osasun Agintaritzari, ireki aurretik/berriz ireki aurretik**; bertan, instalazioak indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun higieniko eta sanitario guztiak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duten dokumentuak instalazioan eskuragarri daudela adieraziko du igerilekuaren edo ur-jolasgunearen titularrak.
- COVID-19 pandemiak eragindako aparteko zirkunstantziak direla-eta COVID-19arekin lotutako osasun-neurrien aplikazioan zuhurtasun eta zorrotasun handieneko printzipioa aplikatu behar denez, **COVID-19 Kontingentzia Plana egin eta/edo eguneratu behar da**, eta plan hori Autokontrolerako Programan sartuko da. Bertan, araudian jasotako jarduera-murritzaketak jasoko dira, eta erabiltzaileen artean kutsatze -arriskuak minimizatzeko prebentzio-neurriak ere ezarriko dira.
Plan hori Osasun Agintaritzari bidali beharko zaio, Erantzukizunpeko Adierazpenarekin batera. Kontingentzia Plana eguneratuta eta instalazioan eskuragarri egongo da.

5. COVID-19 KONTINGENTZIA-PLANA EGITEKO JARRAIBIDEAK

COVID-19 Kontingentzia Planak instalazio bakoitzaren inguruabar konkretuetan zehaztu beharko du dokumentu honetan agertzen diren osasun-dukien aplikazioa. Instalazioaren tamainarekin eta ezaugarriekin bat datorren zehaztasuna izango du, SARS-CoV-2aren transmisio-arriskua minimizatzeko helburuarekin, betiere.

Plana Autokontrolerako Programaren parte izango da, programarekin integratuko da eta, gainerako planetan bezala, argi eta garbi adieraziko du zer, nola, noiz eta nork egin. Horrekin batera, gogoraraziko du erabiltzaileen segurtasuna indartzea dela xedea, segurtasun-tarteak mantenduz eta instalazioan higie-neurriak zorrotzuz, dagoeneko ezarrita dauden gainerako planak betetzea ahaztu gabe.

Langileek eta, bereziki, plana ezartzeko eta neurri berriak zaintzeko eta kontrolatzeko ardura dutenek plana ezagutzen dutela ziurtatu beharko du instalazioaren titularrak.

Egiten den guztia dagozkion erregistroetan jaso eta deskribatu beharko da.

COVID-19 Kontingentzia Planak honako atal hauek izango ditu gutxienez:

- A. Instalazioetarako sarbidea
- B. Pertsonen arteko distantzia mantentzeko neurriak (dukieren kontrola eta segurtasun neurriak)
- C. Erabiltzaileentzako informazioa
- D. Ere-mu komun-en garbiketa eta desinfekzioa
- E. Uraren kalitate-kontrola

A) INSTALAZIOETARAKO SARBIDEA

- Lehen-tasuna emango zaie alde-z aurreko hitzorduari, aurrez *online* eta telematikoki ordaindutakoari, edo ahal den neurrian txanponak eta billeteak ukitzea saihesten duten bestelako neurriei.
- Sarbideek kontaktu fisikorik behar ez izateko ahalegina egingo da, eskumuturrekoak, txartelak eta QR kodeen irakurgailuak erabiliz. Sarreran eskuekin/hankekin ukitu behar diren tornuak badaude, hobe da horiek jait-sita edukitzea.
- Eskuak desinfektatzeko sistemak eta hidrogel desinfektatzailea duten dosifikagailuak jarriko dira instalazioaren sarreran/irteeran eta eraikinaren barruko beste ere-mu batzuetan, dosifikatzaile automatikoarekin ahal dela.

B) PERTSONEN ARTEKO DISTANTZIA MANTENTZEKO NEURRIAK

- Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea 6 urtetik gorako pertsonentzat.

Ez da beharrezkoa izango maskara igerilekuetan erabiltzea bainatu bitartean eta espazio jakin batean dagoen bitartean, betiere erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia errespetatu badaiteke. Igerilekuetako joan-etorriak egiteko eta paseatzeko, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da pertsonen artean 1,5 metroko gutxienezko distantzia etengabe mantendu ezin denean.

- Bai barne-espazioen igerileku-instalazioetan eta ontzien, bai egonleku/solariumezko kanpoko eremuetan, gehieneko edukiera baimendutako edukieraren % 75erainokoa izan daiteke. Edukiera jendaurrean jarri beharko da. Benetako edukiera kontrolatzeko on time sistemak ezarriko dira.
- - Pertsonarteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa izango da, gutxienez, elkarrekin bizi ez diren erabiltzaileen artean, instalazioko espazio guztietan (harrera, nasa, ontziak, aldagelak), antola daitezkeen jardueretan eta elementu komunak erabiltzeko moduan, hala nola armairuak, bankuak eta konketak. Duten kasuan, pertsonen arteko distantzia 2 metrokoa izango da gutxienez.
- Instalazioaren sarbideetan eta barruko ibilbideetan segurtasun-distantzia gordetzen laguntzeko, zirkulazioaren noranzkoa markatuko da, ahal den neurrian; zonalde bakoitzean sarrera-puntuak eta irteera-puntuak bereizten saiatuko gara, eta 1,5 metroko tarteak markatuko dira.
- Igerilekuetako eta ur-jolasguneetako egoteko lekuetan/solariumean, banaketa espaziala ezarriko da, segurtasun-distantzia lortzeko.
- Aldagelak. Gehieneko edukieraren ehuneko 50ean erabili ahal izango dira aldagelak, bai eta dutsak ere, banaka edo pertsonen arteko bi metroko distantzian.
- Soroslea, distantzia eta bere lana egiteko behar adina ikusgaitasun bermatuko dituen eremu batean mantenduko da.
- Txirristak. Erabili ahal izango dira, betiere, ezarritako pertsonen arteko segurtasun -tarteak mantentzeko gehieneko edukiera errespetatzen bada. Txirrista orok harrera-azalera eskusiboa izan beharko du, erabiltzaileak uretara iristen direnean elkar ez daitezten. Harrera-gunetik ontziaren irteerarainoko ibilbidea ezin izango da beste erabiltzaileen ibilbideekin gurutzatu.
- Ur-jolasguneak jendearentzat irekita egon ahal izango dira, baldin eta eremu horietan barrutiaren azaleraren espazio konputagarriko 4 metro karratuko pertsona baten gehieneko edukiera errespetatzen bada. Udalei eta, hala badagokio, administrazio eskudunei dagokie espazioa antolatzea, bai eta garbitasun- eta higiene-baldintzak bermatzea ere.

- Saunak lehorrak edo lurrun-bainuak dituzten instalazioentzako gomendioak:

- Temperatura 60°C-tik gorakoa bada (saunak lehorrak edo finlandiarrek): gorde 1,5 m-ko segurtasun-tartea elkarrekin bizi ez diren erabiltzaileen artean, eta utzi 20 minutuko tartea erabiltzaile-talde baten eta hurrengoaren artean. Baldintza horietan, ez litzateke maskara erabili beharko barnealdean.
- Temperatura 60°C-tik beherakoa bada (lurrunezko bainu gehienak, bainu turkiarrak, hammamak): kutsatzeko arriskua oso handia da, eta giro hezean maskaren eraginkortasuna oso txikia da. Komeni da bakarkako erabilera edo burbuila talde bat bakarrik baimentzea, toalla bat erabiltzea azala gainazalekin kontaktuan egon ez dadin, erabilera bakoitzaren ondoren garbitzea, Osasun Ministerioak baimendutako produktu biruzida batekin, erabiltzaileekin kontaktuan egon daitezkeen alderdi guztiak (barandak, manetak, pomoak) eta 20 minutuko epea uztea erabiltzaile-talde baten eta hurrengoaren artean.

C) ERABILTZAILEENTZAKO INFORMAZIOA

Egungo pandemia-egoera dela-eta, instalazioen erabiltzaileei ohiko mezuak emateaz gain, prebentzio-abisua indartu behar dira, kartelen eta/edo megafoniaren bidez.

Erabiltzaileei prebentzio-neurriei eta igerilekuen eta ur-jolasguneen erabilerari buruz zuzendutako mezuak honako hauek izango lirateke:

Igerilekura edo ur-jolasgunera joan aurretik:

1. COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak badituzu, hala nola sukarra, hotzikarak, eztula, aire-faltaren sentazioa, usaimena edo dastamena gutxitzea, eztarriko mina, giharretako mina, buruko mina, ahultasun orokorra, beherakoa edo gorakoak, ez zaitetz igerilekura joan. Etxean geratu beharko duzu, eta lehenbailehen jakinarazi beharko diozu osasun-zerbitzuari.
2. Galdetu erabilera-, sarbide- eta edukiera-baldintzak.

Igerilekuan, ur-jolasgunean eta instalazioan, oro har:

1. Gutxienez 1,5 metroko pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorde eta maskara erabili B) atalean zehaztutako kasuetan.
2. Eskuak maiz garbitu eta desinfektatu. Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa, aurretik eskuak garbitu gabe.
3. Ahoa erabili eta botatzeko zapi batekin edo ukondoaren barrualdearekin estali ez tul eta doministiku egitean.
4. Eskuoihalak edo bestelako objektu pertsonalak ez partekatu inorekin. Etxera iritsitakoan, garbitu t eskuoihalak eta bainujantziak.
5. Ez erabili baloiak, koltxonetak eta abar.
6. Zaindu itzazu adingabeak, eta behin eta berriz esan prebentzio-neurriak bete ditzaten.

7. Jarraitu instalazioa erabiltzeko arauak eta gomendioak, eta errespetatu ematen diren jarraibideak.
8. COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzu, utzi segituan instalazioa, eta jakinarazi lehenbailehen zure osasun-zerbitzuari.

D) EREMU KOMUNEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

Establezimenduak eta jendea biltzen duten lekuak garbitu eta desinfektatzeko neurrien inguruko Osasun Sailaren Jarraibide Teknikoan (JT-02,2020) ezarritako gomendioak beteko dira, oro har.

Osasun Ministerioan langile espezializatuak erabiltzeko erregistratutako desinfektatzaileak erabili behar badira, Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean (EZBEO) inskribatutako enpresetako teknikari kualifikatuak aplikatuko dituzte.

Igerilekua duten instalazioetan edo ur-jolasguneetan aplikatzen den Autokontrolerako Programak Garbiketa- eta Desinfekzio-plan bat jasotzen du. Pandemia-egoera honetan, zehatz-mehatz aplikatu beharko da plan hori, kontuan hartuta erabilitako produktuek eraginkorrak izan behar dutela COVID-19aren aurrean.

- Garbiketaren eta Desinfekzioaren maiztasuna jende kopuruaren eta erabileraren arabera zehaztuko da. Maizago garbitu eta desinfektatu beharko dira erabiltzailek eskuekin ukitzen dituzten gainazalak (aldageletako ateetako heldulekuak, bainugelak edo dutexak, barandak, bankuak, etab.). Garbiketa bakoitzaren data eta ordua jasoko dituen erregistro bat egingo da, garbiketaren arduradunaren identifikazioarekin. Kanpoko ateak eta leihoak irekitzea gomendatzen da, garbitu eta desinfektatu aurretik.
- Elementu (ate-helduleku...) horien manipulazioa ahalik eta gehien saihesteko, ateak irekita mantenduko dira, ahal den neurrian.
- Ekipoak eta materialak ere garbitu eta desinfektatu beharko dira, hala nola kortxerak, klaseetako material osagarria, sareta perimetrala, botikina, armairuak eta erabiltzaileekin kontaktuan dagoen instalazioko beste edozer.
- Komunetan, une oro egiaztatu beharko da xaboia eta/edo soluzio hidroalkoholikoak daudela, baita erabili eta botatzeko papera ere, eta tapa zein pedala dituzten paperontziak daudela. Gainera, gomendagarria da informazio-kartel bat jartzea ikusteko moduko leku batean (adibidez, ispiluetan, konketaren aurreko paretan), eskuak behar bezala garbitzeko modua azalduz.
- Armairuak garbitzeko eta desinfektatzeko prozedura bat ezarriko da, aurreikusitako erabilera-planaren arabera.
- Alokatzeko edo mailegatzeko altzariak (hamakak, etzaulkiak...) erabilera bakoitzaren ondoren garbitu eta desinfektatuko dira. Maiztasun hori bete ezin bada, ez dira erabiliko.
- Eremu itxien aireztapena areagotu beharko da, hala nola aldagelena, bainugelena, botikinarena eta gela teknikoena, ahal dela naturalki eta modu jarraituan, erabiltzen diren bitartean, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko

airearen sarrera maximizatu eta airearen birzirkulazioa saihestu beharko da, eta mantentze-lanak (iragazkien eta beste elementu batzuen garbiketa) areagotu beharko dira.

- Igerileku estalietan edo mistoetan, ontzien esparruko airea ondo berritzen dela ziurtatuko da, eta 742/2013 Errege Dekretuaren II. eranskinean adierazitako aire-kontrolak egingo dira, III. eranskinean deskribatutakoaren arabera.

E) ONTZIKO ETA UR-JOLASEN MULTZOKO URAREN KALITATE-KONTROLA

Uraren kalitatea irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituen 742/2013 Errege Dekretuan eta EAEko erabilera kolektiboko igerilekuen osasun-araudia onartzen duen 32/2003 Dekretuan xedatutakoaren arabera kontrolatuko da, baita instalazioaren autokontrollean ezarritakoaren arabera ere.

Egoera bereziaren aurrean, honako hau **gomendatzen da**:

- Desinfektatzailearen mailen kontrol zehatza egin; kloroaren kasuan, 1-2 mg/l izango da, eta bromoaren kasuan, 4-5 mg/l, alegia, 742/2013 Errege Dekretuak baimendutako balio-tartearen goiko zatian egongo da.
- Ura 24 orduz edukiko da iragazten eta birzirkulatzen.
- Kloro konbinatua ere bereziki kontrolatu behar da, hondar-kloro askearen maila altuek kloro konbinatuaren maila handitu baitezakete, eta horrek ura gehiago berritu beharra ekarriko luke, kloro konbinatuaren maila murrizteko.
- Beharrezkoa da hondar-kloro askearen eta pH-aren mailak doitzea, urak desinfektatzeko ahalmen handia eduki dezan. pH-a 7,2tik ahalik eta gertuen egonda lortzen da kloro aske portzentaje handiagoa egotea azido hipokloroso moduan, eta desinfekzioa eraginkorragoa edukitzea.
- Ontzian pH-aren eta desinfektatzailearen mailak neurtzeko eta erregistratzeko maiztasuna handituko da, eta fotometroa ongi kalibratuko da. Eguneroko ireki aurreko kontrolaz gain, gutxienez hiru kontrol egingo dira bainura irekitako ordutegiaren barruan, eta jendetza handieneko uneei emango zaie lehentasuna. Emaizak analizatzailearen etengabeko irakurketekin kontrastatuko dira, funtzionamendu egokia berresteko.

6. ERANSKINA: JABEKIDE-KOMUNITATEETAKO IGERILEKUAK

Mota horretako instalazioek COVID-19 Kontingentzia Plana egingo dute, instalazioaren tamaina eta ezaugarrien arabera.

Eremu komun Garbiketa eta Desinfekzioa eta Ontziko uraren kalitatearen kontrola ataletan jasotakoaz gain, Kontingentzia Planak gutxieneko puntu hauek ere jasoko ditu:

- Jabekide-komunitatea da instalazioaren titular erantzulea. Esparruaren sarreran adierazi beharko ditu COVID-19aren ondoriozko egoera dela-eta adostutako salbuespenezko erabilera-arauak.
- Une oro ziurtatu beharko da edukiera, pertsonen arteko segurtasun-distantzia eta erkidegoko gainerako arauak errespetatzen direla.
- Erabilera mugatuko sistema bat ezarriko da, betiere jende-kopurua handia bada eta ezarritako edukiera betetzeko beharrezkoa bada, eta igerilekuaren esparru osoan gutxienez 1,5 metroko pertsonen arteko segurtasun-distantzia bermatzeko aukera errespetatuz.
- Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea 6 urtetik gorako pertsonentzat.

Ez da beharrezkoa izango maskara igerilekuetan erabiltzea bainatu bitartean eta espazio jakin batean dagoen bitartean, betiere erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen badaiteke. Igerilekuetako joan-etorriak egiteko eta paseatzeko, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da pertsonen artean 1,5 metroko gutxieneko distantzia etengabe mantendu ezin denean.

- Igerilekuko esparruaren sarreran hidrogel-dosifikagailuak eta/edo eskuetarako desinfektatzailea ezartzea gomendatzen da.
- Egitura-ezaugarriek ahalbidetzen duten guztietan, ontzira sartzeko eta ontzitik irteteko ibilbideak egingo dira, erabiltzaileak gurutzatzea saihesteko.
- Soroslearentzako gune bat ezarriko da, horren urruntasuna eta bere lana egiteko behar besteko ikusgaitasuna ziurtatzeko.
- Bainu-lekuan sartzeko eta irteteko, gomendatutako gutxieneko 1,5 metroko distantzia gorde beharko da.
- Nasa perimetrala igerilekuko ontziko erabiltzaileak sartzeko eta irteteko baino ez da erabiliko, eta ezingo da bertan beste helburu batzuetarako egon. Pasabidea izan beharko du, eta ezingo da bertan etzan eta eguzkia hartu, eskuoihala jarri eta abar.
- Erabiltzaileek arreta berezia jarriko dute igerilekuko paperontzietan eskularruak edo maskarak ez botatzeko. Kasu horretan, berariazko puntu bat gaitu beharko luke jabekideen komunitateak erabili eta botatzeko materiala biltzeko.
- Igerilekuko aldagelak eta komunak itxita egotea gomendatzen da, baldin eta ezin bada ziurtatu sarbideak behar bezala kontrolatuko direnik eta erabilera bakoitzaren ondoren garbitu eta desinfektatuko direnik, salbu eta mugikortasun urriko pertsonen erabiltzen badituzte.
- Etzaulki edo hamaka komunitarioak erabiltzea debekatuko da, kutsatu ez daitezen. Etzaulki edo hamaka pertsonalak baimenduko dira, baldin eta bermatzen bada ez direla

bizikide ez diren pertsonekin partekatuko. Batetik bestera 1,5 metroko tarte egongo da gutxienez.

- Perimetroko hesietan eskuoihalak jartzea debekatuko da, kutsatzeak saihesteko.
- Nahitaezkoa izango da bainatu aurretik eta bainatu ondoren dutxatzea.

7. ERREFERENTZIAK

- 23/2021 DEKRETUA, maiatzaren 7koa, Lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak buruzkoa.
- 30/2021 DEKRETUA, ekainaren 18koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak buruzkoa
- 33/2021 DEKRETUA, uztailaren 7koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa.
- 38/2021 DEKRETUA, irailaren 17koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak testu bateginean jaso, eguneratu eta zehaztekoa
- 13/2021 ERREGE LEGE DEKRETUA, ekainaren 24koa, honako lege hauek aldatzen dituen: 2/2021 Legea, martxoaren 29koa, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteena, eta 26/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 7koa, COVID-19k garraioen eta etxebizitzaren eremuetan duen eraginari aurre egiteko suspertze ekonomikorako neurriak buruzkoa.
- HONDARTZA ETA IGERILEKUETAN SARS-COV-2REN TRANSMISIOARI BURUZKO TXOSTENA (CSIC, 2020).

https://digital.csic.es/bitstream/10261/210734/1/INFORME_PlayasyPiscinas.pdf

- GOMENDIOAK, SARS-CoV-2 BIRUSA AEROSOLEN BIDEZ GUTXIAGO HEDATZEKO (Eusko Jaurlaritza, 2020)

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/covid_ventilacion/eu_def/adjuntos/birusa-aerosolen-bidez-gutxitu.pdf

- 742/2013 ERREGE DEKRETUA, irailaren 27koa, igerilekuen irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituen.
- 32/2003 DEKRETUA, otsailaren 18koa, erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa onartzeari buruzkoa, eta 208/2004 Dekretua, azaroaren 2koa, erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa aldatzen duena.
- JARRAIBIDE TEKNIKO-02: Osasun Sailaren establezimenduak eta jendea biltzen duten lekuak garbitu eta desinfektatzeko neurriak (JT-02, 2020)

https://www.izenpe.es/contenidos/informacion/coronavirus_normativa/eu_def/adjuntos/JT-02-Establezimenduak-jendea-biltzen-duten-lekuak-garbitu-desinfektatzeko-neurriak.pdf

- Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean (EZBEO)

<https://www.euskadi.eus/informazioa/produktu-kimikoak/web01-a2ingsan/eu/>